

# Erandioko Emakumeen eta Gizonen **Berdintasunerako** **III. Plana (2017-2019)**

2017ko otsaila





<b>1. Sarrera</b> .....	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena.....	3
1.2. Metodologia.....	5
<b>2. Araudi-markoa</b> .....	<b>7</b>
2.1. Berdintasunerako politiken araudi-markoa .....	7
<b>3. Planaren kudeaketa-eredua</b> .....	<b>10</b>
3.1. Plana garatzeko egitura.....	10
3.2. Plana garatzeko aurrekontua.....	14
<b>4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana</b> .....	<b>15</b>
4.1. Planaren aurkezpena .....	15
4.2. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko Gobernantza .....	24
4.3. Emakumeen ahalduntzea eta balio-aldaketa.....	40
4.4. Gizarte-antolaketa erantzukidea.....	51
4.5. Emakumeen aurkako indarkeria .....	56
<b>5. Komunikazio-plana</b> .....	<b>61</b>
5.1. Hasierako komunikazioa .....	61
5.2. Komunikazioa Berdintasunerako Planaren garapeneko urteetan.....	62
5.3. Planaren amaierako komunikazioa .....	62
<b>6. Planaren ebaluazio-sistema</b> .....	<b>63</b>
6.1. Urteko kudeaketa-planak.....	63
6.2. Segimendua .....	63
6.3. Ebaluazioa .....	64



## 1.1. Aurkezpena

Erandioko Udalak hamar urte baino gehiago darama emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politikak bultzatzen. Dagoeneko, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko bi plangintza landu ditu:

- Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana, 2007-2010.
- Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana, 2013-2016.

2016. urtean zehar, Berdintasunerako II. Plana oraindik indarrean dela, Planaren ebaluazioari ekin zaio, horren indarguneak eta etorkizunari begira hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko. Era berean, diagnostiko berria landu da, udalerriko esparru desberdinetan emakumeen eta gizonen egoeraren inguruko argazki eguneratua izateko helburuarekin. Diagnostiko hori oinarri hartuta, Erandioko Emakumeen eta Gizonen III. Plana (2017-2019) diseinatzeko prozesua martxan jarri da. Azken hori da dokumentu honetan aurkezten den lana.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana, Erandioko Udaleko 2015-2019 Legegintzaldi Planaren testuinguruan landu da. Legegintzaldi Planak Udalaren antolaketa-ereduaren berregituraketa proposatzen du, gobernuaren ekintza hiru arlo nagusitan banatuta: Antolaketa, Herritartasuna eta Lurraldea. Legegintzaldi Planak udal-antolaketa eta -kudeaketa eraldatu nahi ditu, Erandioko herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntzara bideratuz eta proiektu zehatzei lotutako estrategia eta lan-ildoak identifikatuz.

Testuinguru horretan, Berdintasunerako III. Planaren helburua da **Erandioko herritarren eta, bereziki, emakumeen bizi-baldintzak hobetzea**, generoen arteko desberdintasunak gutxituz eta berdintasunean oinarritutako gizarte baterantz pausuak emanez.

Planaren diseinua parte hartzeko metodologiaren bidez landu da. Horretarako, herritarren, udal-teknikarien eta -politikarien gogoetarako prozesu bat jarri da martxan. Parte-hartzaileek diagnostikoa aberastu dute, eta Planak jasotzen dituen helburuetako eta ekintzetako batzuk proposatu dituzte. Planaren diseinua Udaleko Berdintasun Zerbitzuak landu du, Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean.

Txostena sei ataletan banatuta dago. Lehendabizikoan, sarrera eta Plana garatzeko erabili den metodologiaren inguruko informazioa aurki daiteke. Bigarrenean, Planaren oinarri den araudi-markoa deskribatzen da. Hirugarren atalak Planaren kudeaketa-eredua jasotzen du. Plana, horren helburuak eta ekintzak laugarren atalean jasotzen dira, eta, horrez gain, berdintasun-politikak garatzeko arduradunak, bete beharreko epeak eta Planaren segimendurako adierazleak zehazten dira. Bosgarren atalean, komunikazioari lotutako alderdiak jasotzen dira, hau da, Planaren zabalkundea zein modutan egingo den. Azkenik, seigarren atalean, Planaren segimendua eta ebaluazioa zein eratan egingo den aurkezten da.



# 1. Sarrera



Antolatutako tailerretako parte-hartzaileak

Amaitzeko, aukera hau probestu nahi dugu gure esker ona emateko Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren diseinuan parte hartu duten eragile, elkarte eta norbanako guztiei, txosten hau horien guztien ekarpenaren fruitua baita.



## 1.2. Metodologia

Berdintasunerako III. Plana lantzeko prozesua maiatzean hasi zen, II. Planaren ebaluazioarekin eta diagnostiko berriaren lanketarekin. Behin bi lan horiek amaituta, urrian, Plana diseinatzeko parte hartzeko prozesua jarri zen martxan.

Jarraian, hilabete hauetan zehar eman diren urratsak deskribatzen dira:



**Urria**

### AURRELANAK

- Lantaldeen antolaketa  
Emakumeen elkarteak eta mugimendu feminista  
Herritarrak (kultura- eta kirol-elkarteak...)  
Udal-teknikariak  
Udal-ordezkarri politikoak



**Azaroa**

### PARTE HARTZEKO TAILERRAK ETA BANAKAKO BILERAK

- **Parte hartzeko tailerrak.** Tailerrak antolatu dira lantaldeekin: ordezkarri politikoak, teknikariak, emakumeen elkarteak eta mugimendu feminista, kultura- eta kirol-elkarteak eta gizarte-gaiak lantzen dituzten elkarteak
- **Banakako bilerak.** Arloz arloko informazio-bilketa egin da, III. Planari begirako helburuak eta ekintzak zehazteko: Funtzio Publikoa, Enplegua, Merkataritza, Kultura, Kirola, Gizarte Ekintza, Obrak eta Zerbitzuak, Osasun Publikoa eta Kontsumoa...



**Azaroa-  
abendua**

### PLANAREN DISEINUA ETA ONARPENA

- III. Planaren zirriborroaren lanketa
- III. Planaren kontrastea Talde Eragilean
- III. Planaren behin betiko dokumentuaren lanketa
- III. Plana Emakunden aurkeztea
- III. Plana Udalbatzan onartzea

Planaren lanketan 30 pertsonak parte hartu dute parte: 24 emakumek eta 6 gizonak. Honako hauek dira lantaldeak osatu dituzten pertsona, elkarte, udal-arlo eta ordezkarri politikoak:


- **Emakumeen elkarteak eta mugimendu feminista:** Astrabuduko Emakumeen Elkarte, Altzagako Emakumeen Elkarte, Erandiogoikoako Emakumeen Elkarte, Txoko Feminista.
- **Elkarteak (kultura, kirola, gizarte-gaiak...):** Erandioko Jubilatuen Elkarte, Lutxana Arraun Taldea, Trabudu Dantzari Taldea, Altzagako Jai Batzordea, Astrabuduko Jai Batzordea.



# 1. Sarrera

- **Udaleko teknikariak:** Gizarte Ekintza, Musika Eskola, Osasun Publikoa eta Kontsumoa, Euskara, Kirola, Hirigintza, Diziplina, Obrak eta Zerbitzuak, Kultura, Enplegua eta Berdintasuna.
- **Udaleko ordezkari politikoak:** EAJ-PNV, PSOE-EE, GANEMOS ERANDIO, EH-BILDU, PP.

Jarraian, parte hartu duten pertsonen profila aurkezten da:





### 2.1. Berdintasunerako politiken araudi-markoa

Atal honetan, Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana lantzeko eta diseinatzeko oinarri hartu den araudi-markoa jaso dugu.

Berdintasunaren printzipioak sexuagatiko edozein diskriminazio-motaren debekua exijitzen du, eta hainbat arautan jasota dago.

#### **Emakumeen aurkako bereizkeria guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (1979)**

4/2005 Legeak hasierako adierazpenean jasotzen duen moduan, emakumearen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten NBEko kideek: *“Printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”*.

#### **Amsterdamgo Ituna (1999)**

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

#### **Euskadiko Autonomia Estatutua (1979)**

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluan, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: *“Herri-aginteeek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin”*.

#### **Otsailaren 5eko 2/1988 Legea, Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa**

Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartu zuen. Lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zuen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultzatzea egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.



### **Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integrala (1/2004)**

2004 urtean, Espainiako Estatuak Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integrala (1/2004) onartu zuen, indarkeria horri aurre egiteko estrategia ezberdinak ezarriz, bai juridikoak bai neurri sozialak ere (prebentzioa eta biktimaren babes integralerako).

### **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea**

Berdintasunerako eskubidea praktikan aplikatzea da, hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen xedea. Lege horrek mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiarazi ditzaten lortzeko, halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoak —egiturazkoa eta unibertuala— gizartetik desagerraraz dadin.

### **Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea**

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak garrantzi nabarmena du. Lege horrek jauzi kualitatibo handia dakar genero-*mainstreaminga* edo genero-zeharkakotasuna aplikatzeko norabidean.

*“Gizon eta emakumeen Berdintasunerako Planak” izeneko II. tituluaren 15. artikuluan hau zehazten da:*

*“Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak edo programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorretan ezarritako gidalerroekin eta esku hartzeko ildoekin bat etorritik, eta ondorengo bermatuko dute, beharrezko bitarteko material eta ekonomikoak eta giza bitartekoak erabiliz: foru-aldundietako sailetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan eta menpeko beste erakunde publikoetan edo horiekin lotutakoetan eraginkortasunez eta koordinatuta betearaztea planetan eta legean ezarritako neurriak. Udalek banaka edo mankomunitate gisa edo horretarako eratuko diren mankomunitate gisa egin ditzakete jarduketak. Hartara, Eusko Jaurlaritzaren laguntza tekniko eta foru-aldundien diru-laguntza izango dute, bereziki, ekonomi eta kudeaketarako ahalmen txikiena dutenek”.*

### **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana (2013)**

Emakundek 2013ko abenduan onetsi zuen EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Plana. Plan horretan, X. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera bideratu behar duten gidalerroak bildu dira. Aurreko bost planak indarrean izan diren urteetako eboluzioaren eta aurrerapenen emaitza gisa sortu da, Emakumeen eta Gizonen otsailaren 18ko 4/2005 Legearen onespina irekitzen duen markoan.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak bere egin du berdintasunerako gobernantzaren ildotik lan egin beharra, berdintasunerako bidean. Estrategia horiek gehitze-efektua dakarte eta berdintasunerako helburuak lortzen laguntzen dute. Zehazki, VI. Planean, *mainstreaminga* eta gobernantza oinarrian daude: hiru ardatz bildu dira, berdintasunaren arloan





## 2. Araudi-markoa

esku hartzeko zutabe handiak biltzen dituztenak –emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzea, antolaketa sozial erantzunkidea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.





### 3.1. Plana garatzeko egitura

Erandioko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Planaren garapen egokia bermatzeko, Udalak beharrezkoak diren koordinazio-egiturak sortu eta martxan jarriko ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorreari jarraituz: *“Euskal herri-aginteez, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezen”*.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik landuko da, hots, Udalaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartuko dute. Horregatik, Planaren bidez erdietsi nahi diren erronkak lortzeko, hainbat lan-esparru edo egitura beharko dira, eta horietako bakoitzak funtzio eta zeregin zehatzak izango ditu.

Erandioko Berdintasunerako III. Planak 25 helburu eta 80 ekintza zehatz jasotzen ditu, hiru urteko epealdian garatu beharrekoak.

Jarraian, proposatutako egiturak, horien osaera eta funtzioak azalduko ditugu:

- Berdintasun Zerbitzua
- Herritartasun Batzordea
- Berdintasun Mahaia
- Berdintasun Kontseilua





## 3. Planaren kudeaketa-eredua

III. Planaren koordinaziorako sortu beharreko egitura garrantzitsuena Berdintasun Zerbitzua da.

### **BERDINTASUN-ZERBITZUA**

**Berdintasunerako Planaren garapen eta segimendu koherente eta koordinatua bermatzea.**

#### **Parte-hartzaileak**

- Berdintasun Teknikaria
- Udaleko Berdintasun Zerbitzuko Arduradun Teknikoa
- Berdintasuneko Arduradun Politikoa

#### **Funtzioak**

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Planak eta herritarrek proposatutako neurriak garatzea.
- Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
- Helburu eta denboren betetze-mailaren segimendua egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri horien ezarpen-maila baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea.
- Lortutako helburuak mantentzeko behar diren ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.
- Planaren segimendua eta ebaluazioa egitea.

Plana diseinatzeko egindako tailerretan, beharrezkoa ikusi da udal-sailen arteko koordinazio teknikorako egitura bat sortzea. Planaren zeharkakotasuna Udaleko 2015-2019 Legegintzaldi Planean jasotzen den Herritartasun Batzordearen bidez bermatuko da.



<b>HERRITARTASUN-BATZORDEA</b> <b>Berdintasunerako Planaren garapen tekniko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren segimendua egitea ere.</b>
<b>Parte-hartzaileak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Udaleko Berdintasun Zerbitzuko Arduradun Teknikoa</li><li>• Berdintasuneko Arduradun Politikoa</li><li>• Herritartasuna arloko zerbitzu guztietako ordezkari teknikoak</li><li>• Herritartasuna arloko zerbitzu guztietako ordezkari politikoak</li></ul>
<b>Funtzioak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurri guztiak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.</li><li>• Lortutako helburuak mantentzeko eta tresnak kudeatzeko behar diren ardurak zehaztea.</li><li>• Saitetako langileei laguntza eskaintzea, genero-ikuspegiarekin lan egin dezaten.</li><li>• Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena egitea, egindako jardueri, erabilitako bitartekoei eta baliabideen segimenduari buruzkoa, aurreko urtean aurreikusitako helburuak bete ote diren egiaztatzeko balorazioarekin.</li><li>• Planaren segimendua eta ebaluazioa egitea.</li></ul>

2015ean, Berdintasunerako Lan Mahaia sortu zuen Udalak, sexu-jazarpenera eta sexuagatiko jazarpenera prebenitzeko eta biktimei arreta hobea emateko protokoloa lantzeko hobekuntza-taldea sortzeko helburuarekin. Orain arte zazpi bilera egin dira, eta batzar horietan Mahaiaren araudia eta funtzionamendua zehaztu dira.

Mahai hori gune eta tresna interesgarria izan daiteke Udal barruko funtzionamendua hobetzea helburu duten berdintasun-politikak garatzeko.



<b>BERDINTASUNERAKO LAN-MAHAIA</b> <b>Udal barruko funtzionamendua hobetzea helburu duten berdintasun-politikak garatzea</b>
<b>Parte-hartzaileak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Berdintasun Teknikaria</li><li>• Udaleko Berdintasun Zerbitzuko Arduradun Teknikoa</li><li>• Berdintasuneko Arduradun Politikoa</li><li>• Udaleko ordezkari politikoak (EA, PSE, Ganemos Erandio, EH Bildu, PP)</li><li>• Udaleko ordezkari sindikalak (ELA, LAB, UGT)</li></ul>
<b>Funtzioak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Sexu-jazarpenari eta sexu-arrazoiagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa lantzea eta langileen artean zabaltzea.</li><li>• Udaleko langileen lan-baldintzen inguruko azterlana egitea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna erraztuko duten neurrien aplikazioa baloratzeko.</li><li>• Planaren barruan martxan jartzen diren bestelako ekimenetan modu aktiboan parte hartzea.</li><li>• Planaren segimendua eta ebaluazioa egitea.</li></ul>

2013. urteaz geroztik, Erandiok Berdintasun Kontseilua dauka. III. Planak egitura hori mantendu eta indartzea du helburu, herritarrei gehiago zabalduz (udalerriko elkarte eta gainerako erakundeei).



### BERDINTASUN KONTSEILUA

Udalak garatzen dituen politiketan modu aktiboan parte hartzea eta Planaren segimendua egitea

#### Parte-hartzaileak

- Emakumeen elkarteak
- Mugimendu feminista
- Kultura- eta kirol-arloko elkarteak eta gizarte-gaiez arduratzen direnak.
- Berdintasun Zerbitzuko Teknikaria
- Udaleko Berdintasun Zerbitzuko Arduradun Teknikoa
- Berdintasuneko Arduradun Politikoa

#### Funtzioak

- Berdintasunaren gaiaren inguruan Udalari aholkua ematea.
- Ekintza puntualak antolatzea, Udalarekin elkarlanean.
- Berdintasunaren alde lan egiten duten eta lan egiteko prest dauden elkarten arteko elkarlana bultzatzea: emakumeen elkarteak nahiz talde feministak.
- Iritzia eta analisirako gaitasuna sortzea eta hausnarketarako espazioa izatea.
- Planaren segimendua eta ebaluazioa egitea

### 3.2. Plana garatzeko aurrekontua

III. Planean jasotako berdintasun-politikak garatzeko 2017. urterako aurreikusitako aurrekontua 143.000 €-koa da.

Berdintasun Zerbitzuaren helburua da udalaren aurrekontua urtean % 10 handitzea, baldin eta beharrezko baldintzak betetzen badira.

PLANAREN GARAPENeko URTEA	AURREKONTUA
2017	143.000 €
2018	157.300 €
2019	171.600 €



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III Plana

### 4.1. Planaren aurkezpena

Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana 4 ardatzetan egituratuta dago, Emakunderen VI. Planari jarraikiz.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza
- Emakumeen boteretzeta eta balio-aldaketa
- Gizarte-antolaketa erantzunkidea
- Emakumeen aurkako indarkeria

Planak hiru urtetako indarraldia izango du eta, beraz, 2017-2019 urteetan gauzatzeko ekintza-sorta bat da. Planean ardatzak, helburuak, ekintzak, horiek gauzatzeko behar den aurrekontua, arduradunak, emango diren lankidetzak eta segimendurako eta ebaluaziorako adierazleak jasotzen dira.

Berdintasunerako III. Plana balio hauetan oinarrituko da:

- **Malgutasuna:** unean uneko egoerei erantzungo die, eta, beraz, aldaketak egin ahal izango dira. Horretarako, urtez urteko planetan ekintzak zehazteko aukera egongo da.
- **Dinamismoa:** etengabe berrikusten, ebaluatzen, berritzen eta moldatzen joango da.
- **Parte-hartzea:** egitasmoa hainbat eragileren artean eta elkarlanean eraikiko da.
- **Komunikazioa:** eragileen arteko norabide anitzeko informazio-fluxuak sortuko ditu.
- **Koordinazioa:** elkar zapaltzen ez diren ekintzak antolatuz eta, are gehiago, indarrak batuz eta sinergiak aprobetxatuz gauzatuko da.
- **Adostasuna:** hausnarketan oinarrituz eta alde guztien artean bilatutako irtenbideak aplikatuz egingo da.



# 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	1. Udal-teknikarien eta udal-politikarien inplikazioa handitzea berdintasun-politiketan	1.1. Udal-teknikari eta -politikariei Planaren berri ematea 1.2. Planaren segimendua egiteko, koordinazio teknikorako Mahaia sortzea 1.3. Planaren segimendua errazteko tresna sortzea eta, horren bidez, Planaren segimendua egitea urtero 1.4. Berdintasunerako Planari lotutako urteroko kudeaketa-planak eta memoriak lantzea 1.5. Planaren segimendua egitea Batzorde Politikoaren bileretan
	2. Herritarrak berdintasun-politiketan inplikatzea eta euren parte-hartzea handitzea	2.1. Plana herritarren artean zabaltzea 2.2. Planaren segimendua egitea Berdintasun Kontseiluaren bidez
	3. Berdintasun Zerbitzua indartzea	3.1. Berdintasun Zerbitzuaren egitura indartzea, Herritartasunaren arloaren barruan, Legegintzaldiko Plan berriari jarraikiz 3.2. Berdintasun Zerbitzutik martxan jartzen diren politikei ikusgarritasuna ematea, Udaleko webgunearen, sare sozialen... bidez 3.3. Zerbitzuaren beharrak zein diren aztertzea eta horiei erantzun egokia emateko baliabideak ezartzea urtero 3.4. Berdintasun Zerbitzuaren parte-hartzea sustatzea Udalez gaindiko koordinazio-egituretan (Berdinsarea, Indarkeriaren kontrako Batzordea, Beldur Barik..)
	4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea	4.1. Sexu-aldagaia txertatzea Udalaren eta Udalarentzako lan egiten duten enpresen datu-base eta estatistika guztietan 4.2. Azterlanak eta memoriak lantzea, sexu-aldagaia kontuan hartuta 4.3. Datu-baseen segimendua egitea urtero, sexu-aldagaia jasotzen dutela bermatzeko





## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	5. Komunikazio barneratzaile eta ez-sexistaren erabilera hobetzea	5.1. Komunikazio barneratzailea bermatzeko irizpideak jasoko dituen araudia edo gida sortzea eta horren zabalkundea egitea (udal-teknikariei zein ordezkari politikoei ezagutzera ematea) 5.2. Komunikazio barneratzailea erabiltzeko trebakuntza eskaintzea udal-teknikariei eta ordezkari politikoei 5.3. Araudian edo gidan jasotako irizpideen betetze-maila zein den ezagutzeko azterlan bat egitea urtero 5.4. Udalarentzako lan egiten duten enpresei komunikazio barneratzailea erabiltzeko eskaria egitea
	6. Berdintasunaren aldeko araudiak sortzea	6.1. Berdintasunerako udal-ordenantza lantzea eta aplikatzea
	7. Genero-ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontuak lantzea	7.1. Sail bakoitzean berdintasun-politikak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak aztertzea eta horiei erantzun bat ematea 7.2. Udalak onartzen dituen aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten inpaktua aztertzen hasia 7.3. Udalak onartzen dituen aurrekontuetan ahultasun-egoera larriengan dauden emakumeen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako baliabideak aurreikustea 7.4. Berdintasuna sustatzea, elkarrekin zein erakundeei (kirola, gizarte-gaiak, kultura, jaiak) diru-laguntzak esleitzerakoan genero-irizpideak txertatuz eta horien betetze-mailaren balorazioa eta segimendua eginez 7.5. Emakumeen elkarrekin eta mugimendu feministak antolatutako ekintzak sustatzeko baliabideak aurreikustea
	8. Udal-politikan genero-ikuspegia txertatzea	8.1. Herritartasunaren arloan garatutako programetan genero-ikuspegia txertatzea



# 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	9. Berdintasuna sustatuko duten kontratazioak eta hitzarmenak egitea	9.1. Udalak egiten dituen kontratazio-pleguetan eta hitzarmenetan genero-klausulak txertatzea eta horien betetze-mailaren segimendua egitea
	10. Udal-organo parekideak bermatzea	10.1. Ekitaldi publikoetan (prentsurrekoak, omenaldiak...) parekidetasuna bermatzeko irizpideak ezartzea eta horien betetze-mailaren segimendua egitea 10.2. Udal-organoak arautzen dituzten araudietan ordezkari-tza parekidea bermatzeko irizpideak jasotzea 10.3. Epaimahai, lehiaketa edo sari-banaketetan parekidetasuna bermatzeko irizpideak ezartzea eta horien segimendua egitea
	11. Berdintasunean oinarritutako hautaketa-eta promozio-prozesuak egitea	11.1. Hautaketa-prozesuen gaitegietan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako gaiak txertatzea 11.2. Hautaketa prozesuetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko ezagutza eta esperientzia baloratzea lanpostuarekin lotutako alderdietan
	12. Trebakuntza eskaintzea berdintasun-gaietan	12.1. Udal-teknikari eta ordezkari politikoei berdintasun-gaietan dituzten trebakuntza-beharrak zeintzuk diren ezagutzeko azterlana egitea 12.2. Udaleko eragile guztiei zuzendutako Berdintasunerako Trebakuntza Plana lantzea eta III. Plana indarrean egongo den urteetan Trebakuntza Plan hori garatzea 12.3. Genero-berdintasunarekin lotutako ikastaroen, jardunaldien... zabalkundea egitea (Udalak antolatutakoak zein Udaletik kanpokoak)
	13. Udal-langileen bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna erraztea	13.1. Udaleko langileen lan-baldintzen inguruko azterlan bat egitea eta bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna sustatuko duten neurri berriak aplikatzeko beharra baloratzea
	14. Berdintasunean oinarritutako lanlekua bermatzea	14.1. Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloa lantzea eta Udal-langileei horren berri ematea 14.2. Udal-antolaketa-aren inguruko azterlana egitea, genero-ikuspegia kontuan hartuta (kategoriak, lanpostu eta funtzioak, ordainsariak...)



# 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako

## III. Plana

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA BALIO-ALDAKETA	15. Emakumeen jabeakuntza pertsonal eta kolektiboa sustatzea	<p>15.1. Emakumeen jabeakuntza pertsonal eta kolektiboa sustatzeko lanean jarraitzea, Jabeakuntza Eskolaren bidez</p> <p>15.2. Berdintasun Kontseilua indartzea, kolektibo eta erakunde desberdinen eta herritarren parte-hartzea sustatuz</p> <p>15.3. Udalerriko merkataritza-elkarteek eta emakume-elkarteek izan duten lotura historikoa indartzea, data jakinetan kanpainak antolatuz eta elkarlanerako momentuak sustatuz</p> <p>15.4. Emakumeak euren osasunaren protagonista eta eragile aktibo bilakatzeko ekintzak eta programak martxan jartzea</p> <p>15.5. Harreman afektibo eta sexualen, ugalketa-harremanen, genero-identitatearen askatasunaren eta aniztasunaren... inguruko sentsibilizazioa lantzea</p> <p>15.6. Sexologiako zerbitzuari bultzada bat ematea, zabalkunde eta publizitate gehiago eginez eta herritarren hainbat kolektiboentzako jarduerak sustatuz.</p> <p>15.7. Emakume autoktonoen eta udalerrian bizi diren emakume migratuen arteko elkarlana sustatzeko sareak sortzea</p>
	16. Emakumeen autonomia sozio-ekonomikoa sustatzea	<p>16.1. Autoenpleguari eta ekintzaitasunari zuzenduta Udalak ematen dituen diru-laguntzetan, genero-aldagaia txertatzea diskriminazio positiborako elementu moduan</p> <p>16.2. Emakumeen enplegua sustatzeko estrategikoak diren esku-hartzeko eremuak identifikatzea eta lehentasunak ezartzea</p> <p>16.3. Migratutako emakumeei lan-merkatuaren inguruko aholkularitza eta laguntza eskaintzea</p>



# 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
EMAKUMEEN BOTERETZEA ETA BALIO-ALDAKETA	17. Emakumeen parte-hartze sozio-politikoaren berrantolaketa	<p>17.1. Udalerriko elkarte-sarearen inguruko datuak sexu-aldagaiaren arabera jasotzea eta sistematizatzea, eta jasotako datuekin txostena sortzea, kultura- eta kirol-arloan emakumeen eta gizonen parte hartzea nolakoa den ezagutu ahal izateko</p> <p>17.2. Udalerrian antolatzen diren kultura-lanen ekoizpenean emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatzea (adibidez, antzerkian eta musikan), emakumeen presentzia sustatuz</p> <p>17.3. Nesken (haur eta gaztetxoek) kirol-praktika sustatzeko estrategiak diseinatzea; batez ere, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzen direnean</p> <p>17.4. Jai Batzordeei zuzendutako sentsibilizazio-ikastaroak antolatzea eta elkarteekin elkarlanean aritzea, berdintasunean oinarritutako jaiak sustatzeko helburuarekin</p> <p>17.5. Diskriminazio positiboa egitea, emakumeen parte-hartzea sustatzea helburu duten ekintzak antolatzen dituzten elkarteak nolabait sarituz diru-laguntzen bidez</p>
	18. Emakumeen ikusgarritasuna eta errekonozimendua ematea	18.1. Kale-izenak eta monumentuen izenak gainbegiratzea eta eguneratzea, emakumeen ikusgarritasuna eta errekonozimendua sustatzeko
	19. Balioen aldaketa sustatzea, genero-rolak eta sexuaren araberrako estereotipoak gaituz	<p>19.1. Hezkidetzak eskaintzea ikastetxeetan</p> <p>19.2. Tratu onei buruzko ikastaroak eta emakumeen zuzendutako jabetasun-ikastaroak eskaintzea ikastetxeetan</p> <p>19.3. Hezkuntza afektibo eta sexuala lantzeko tailerrak eskaintzea ikastetxeetan</p> <p>19.4. Ikastetxeetako irakasleen trebakuntza areagotzea berdintasun-gaiei dagokionez</p> <p>19.5. Hezkuntza ez-formaleko hezitzaileei zuzendutako trebakuntza-ikastaroak antolatzea</p> <p>19.6. Martxan jartzea Guraso Elkarteetako (GE) kontzientziazio eta sentsibilizazio jarduerak.</p>



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
EMAKUMEEN BOTERETZEA ETA BALIO-ALDAKETA	20. Herritarrak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea	<p>20.1. Data jakinen inguruan sentsibilizazio-kanpainak garatzen jarraitzea</p> <p>20.2. Herriko establezimenduen parte-hartzea sustatzea martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainetan, komunikazio-euskarrien bidez kanpainekin bat egin dezaten</p> <p>20.3. Data jakinetan, berdintasunarekin lotutako gaiak lantzeko (genero-estereotipo eta -rolak, emakumeenganako indarkeria..) helburua duen programazio kulturala antolatzea</p> <p>20.4. Udal-liburutegiekin elkarlanean, berdintasuna sustatuko duten ekintzak antolatzea: irakurgaien eta filmen hautaketa data jakinen inguruan, umeekin genero-ikuspegia lantzerantz bideratutako saioak ipuin-kontalariekin...</p> <p>20.5. Udalerriko enpresa-sareari bideratutako inkestetan, berdintasunarekin lotutako galderak txertatzea (langileak sexu-aldagaia kontuan hartuta, berdintasun-planen ezarpena, sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloak...) eta jasotako informazioarekin txosten bat egitea urtero</p>



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
<b>GIZARTE ANTOLAKETA ERANTZUNKIDEA</b>	<b>21. Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna sustatzea</b>	<p>21.1. Bateragarritasuna erraztuko duten baliabideak eskaintzea (haurtzaindegi-zerbitzua, mendekotasuna duten pertsonen arretarako zerbitzua...) udalerrian ekintzak antolatzerakoan</p> <p>21.2. Mendekotasuna duten pertsonen arretarako zerbitzuak sustatzea zaintzaileentzako tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak eta antzekoak antolatzerakoan.</p>
	<b>22. Zaintzaren etika bultzatzea</b>	<p>22.1. Zaintza-lanen banaketa erantzunkidea sustatzeko sentsibilizazio-ekintzak martxan jartzea</p> <p>22.2. Gizarte Ekintza Sailaren eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko elkarlana sustatzea eta herritarrei zuzendutako ekimen bateratuak antolatzea (Jabekuntza Eskola, migratuei zuzendutako ekintzak...)</p> <p>22.3. Emakumeek beste pertsonen eta euren buruaren zaintzarako dituzten zerbitzu, programa eta baliabideen inguruko zabalkundea eta publizitatea hobetzea</p> <p>22.4. Zaintza-lanak dituzten pertsoneri zuzendutako baliabideak eta programak sustatzea</p>
	<b>23. Irisgarriagoa izango den udalerria sustatzea</b>	<p>23.1. Emakumeek hirigintza diagnostikoaren bidez identifikatutako guneetan mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko ekintzak martxan jartzea</p> <p>23.2 Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean genero-ikuspegia txertatzea</p>



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA	24. Emakumeenganako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioan eta prebentzioan lan egitea	24.1. Erandion ematen diren emakumeen aurkako indarkeria-kasuak publikoki salatzea 24.2. Data jakinen inguruan sentsibilizazio-kanpainak antolatzea (azaroak 25, jaiak...) 24.3. Beldur Barik programan gazteen parte-hartzea sustatzea 24.4. • Udalerriko saltokiak inplikatzeko Beldur Barik sarien urteroko banaketan, bai eta emakumeen aurkako indarkeriaren gainean egiten diren sentsibilizazio-kanpaina zenbaitetan (M8, A25, etab.).
	25. Indarkeriaren biktima diren emakumeen ematen zaien arreta hobetzea	25.1. Indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako Protokoloaren koordinazioan eta aplikazioan modu aktiboan parte hartzen jarraitzea 25.2. Protokoloaren koordinaziorako Mahaian inplikaturako sail guztien parte-hartzea indartzea 25.3. Indarkeriaren biktimen datuen sistematizazioan aurrerapausoak ematen jarraitzea eta Gizarte Ekintzatik egiten diren esku-hartzeak eta deribazioak jasotzen dituen urteroko txostena lantzea 25.4. Indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako arreta psikologikorako udal-zerbitzua martxan jartzea 25.5. Aholkularitza juridikorako udal-zerbitzua indartzea eta horren zabalkundea egitea udalerrian



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

### 4.2. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko Gobernantza

#### **EGOERAREN DESKRIBAPENA**

Erandioko Udalak hamar urte baino gehiago daramatza, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politika planifikatuak garatzen, 2007. urtean Berdintasunerako I. Plana martxan jarri zuenetik.

Hamar urte horietan, aurrerapauso handiak eman dira: Berdintasun Zerbitzua sortu da, koordinaziorako hainbat egitura eratu dira eta zeharkakotasunerako bidean urratsak eman dira. Hala ere, hobetzeko alderdiak aurkitu ditzakegu: oraindik ere, ez da sistematikoki genero-ikuspegiarekin lan egiten, nahiz eta Udaleko zenbait arlok horretarako ahalegina egiten duten.

Berdintasunerako politikak ez dira arauen bidez arautu. Esate baterako, diru-laguntzak esleitzeko edo kontratazioak egiteko orduan, ez dira genero-irizpideak ezarri, modu orokorrean. Zentzu honetan, bideratu diren ekintzak puntualak izan dira.

Bestalde, Udalak oraindik ez du sexu-jazarpena eta jazarpen sexistari aurre egiteko Protokolorik, 2015. urtean sortutako Berdintasunerako Lan-mahai horretan lanean hasi bada ere.

Erandioko Udalak jauzi kualitatiboa eman beharko luke hurrengo urteetan, berdintasunaren aldeko gobernantza lortu ahal izateko. Horretarako, udal-langile eta –ordezkariak berdintasun gaietan trebatzeaz gain, berdintasunerako politika bermatzeko beharrezko egiturak eta baliabideak ezarri beharko lirateke.





## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

### ARDATZA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA

#### HELBURUA: 1. Udal-teknikarien eta –politikarien inplikazioa handitzea, berdintasunerako politketan

NEURRIAK	ARDURADUNAK/ INPLIKATUTAKO SAILAK	EPEA	ADIERAZLEAK
1.1. Udal-teknikariei eta –politikariei Planaren berri ematea	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoak <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	2017	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egindako aurkezpen-bileren kopurua</li> <li>- Bileretan parte hartutako sail eta pertsona-kopurua</li> </ul>
1.2. Planari jarraipena egiteko, koordinazio teknikorako Mahaia sortzea	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoak <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	2017 2018 2019	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinazio Mahaiaren bilera-kopurua</li> <li>- Bileretan parte hartutako sail eta pertsona-kopurua</li> </ul>
1.3. Planaren jarraipena errazteko tresna sortzea eta horren bidez, urtero, Planari jarraipena egitea	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoak	2017 2018 2019	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarraipenerako tresna sortu da: bai/ez</li> <li>- Jarraipenerako tresna urtero elikatu egin da: bai/ez</li> </ul>
1.4. Berdintasunerako Planari lotutako urteroko kudeaketa-planak eta memoriak lantzea	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoak Planean inplikaturako zerbitzu guztiak	2017 2018 2019	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urteroko kudeaketa-planak sortu dira: bai/ez</li> <li>- Urteroko memoriak sortu dira: bai/ez</li> </ul>



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana

<b>1.5. Planari jarraipena egitea Batzorde Politikoaren bileretan</b>	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkarria	<b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzorde Politikoaren bilera-kopurua</li> <li>- Bileretan parte hartutako sail eta pertsona-kopurua</li> </ul>
---	---	---	---

### ARDATZA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA

#### HELBURUA: 2. Herritarrak berdintasunerako politiketan inplikatzera eta euren parte-hartzea handitzea

NEURRIAK	ARDURADUNAK/ INPLIKATUTAKO SAILAK	EPEA	ADIERAZLEAK
<b>2.1. Plana herritarrei ezagutzera ematea</b>	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkarria	<b>2017</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Plana Udaleko Webgunean txertatuta: bai/ez</li> <li>- Komunikabideen bidez Planaren berri eman da: bai/ez</li> <li>- Aurkezpen publikoak egin dira: bai/ez</li> </ul>
<b>2.2. Planari jarraipena egitea Berdintasun Kontseiluaren bidez</b>	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa	<b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berdintasunerako Plana landu den Berdintasun Kontseiluaren bilera kopurua</li> <li>- Bileran parte hartutako pertsonak eta elkarteak</li> </ul>



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

### ARDATZA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA

#### HELBURUA: 3. Berdintasun Zerbitzua indartzea

NEURRIAK	ARDURADUNAK/ INPLIKATUTAKO SAILAK	EPEA	ADIERAZLEAK
3.1. Berdintasunerako Zerbitzuaren egitura indartzea, Herritartasunaren arloaren baitan, Legegintzaldiko Plan berriari jarraituz	<b>Teknikoa:</b> BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	2017 2018 2019	- Zerbitzuaren egitura indartu da: bai/ez
3.2. Berdintasun Zerbitzutik martxan jartzen diren politikei ikusgarritasuna ematea, Udaleko Webgunearen, sare sozialen... bidez	<b>Teknikoa:</b> BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	2017 2018 2019	- Udaleko Webgunean Berdintasun Zerbitzuaren edukiak eguneratuak mantendu dira: bai/ez - Berdintasun Planarekin lotuta, egindako argitalpen kopurua
3.3. Urtero, Zerbitzuaren beharrak zeintzuk diren aztertzea eta horiei erantzun egokia emateko baliabideak ezartzea	<b>Teknikoa:</b> BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	2017 2018 2019	- Planean jasotako ekintzak garatzeko beharrezko baliabideekin hornitu da Zerbitzua: bai/ez



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

<p><b>3.4. Berdintasun Zerbitzuaren parte-hartzea sustatzea, udalaz gaindiko koordinaziorako egituretan</b></p>	<p><b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa</p> <p><b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria</p>	<p><b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berdintasun Zerbitzua parte hartzen duen egitura kopurua</li> <li>- Egiturek egindako bilera-kopurua</li> </ul>
---	--	--	--

### ARDATZA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA

#### HELBURUA: 4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea

NEURRIAK	ARDURADUNAK/ INPLIKATUTAKO SAILAK	EPEA	ADIERAZLEAK
<p><b>4.1. Sexu-aldagaia txertatzea, Udalaren eta Udalarentzako lan egiten duten enpresen datu-base eta estatistika guztietan</b></p>	<p><b>Teknikoa:</b> Udaleko Sail guztietako Arduradunak</p>	<p><b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Datu-baseetan sexu-aldagai barneratu duen sail-kopurua</li> <li>- Sexu-aldagaia jasotzen duten datu-baseen ehunekoa</li> </ul>
<p><b>4.2. Azterlanak eta memoriak lantzea, sexuaren aldagaia kontuan hartuta</b></p>	<p><b>Teknikoa:</b> Udaleko Sail guztietako Arduradunak</p>	<p><b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azterlan eta memoriatan sexu-aldagaia aztertzen duen sail-kopurua</li> </ul>
<p><b>4.3. Datu-baseek sexuaren aldagaia jasotzen dutela bermatzeko, urtero, horien jarraipena egitea</b></p>	<p><b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa</p>	<p><b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Datu-baseetan sexu-aldagai barneratu duen sail-kopurua</li> <li>- Sexu-aldagaia jasotzen duten datu-baseen ehunekoa</li> </ul>



# 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana

## ARDATZA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA

### HELBURUA: 5. Komunikazio barneratzaile eta ez-sexistaren erabilera hobetzea

NEURRIAK	ARDURADUNAK/ INPLIKATUTAKO SAILAK	EPEA	ADIERAZLEAK
5.1. Komunikazio barneratzailea bermatzeko irizpideak jasoko dituen araudia edo gida sortzea eta horren zabalkundea egitea (udal-teknikariei zein ordezkari politikoei ezagutzera ematea)	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	<b>2017</b> <b>2018</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio barneratzaileko araudia edo gida sortu da: bai/ez</li> <li>- Udalean araudi edo gidaren zabalkundea egin da: bai/ez</li> </ul>
5.2. Komunikazio barneratzailea erabiltzeko trebakuntza eskaintzea udal-teknikariei eta ordezkari politikoei	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa Funtzio Publikoko Teknikaria <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	<b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolatutako trebakuntza-ikastaroek kopurua</li> <li>- Ikastaroetan parte hartu duten pertsona-kopurua</li> <li>- Parte-hartzaileek egindako balorazioak</li> </ul>
5.3. Araudian edo gidan jasotako irizpideen betetze-maila zein den ezagutzeko, urtero, azterlana egitea	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa	<b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sail bakoitzean komunikazio barneratzailea bermatzen duten dokumentuen ehunekoa</li> </ul>



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana

<b>5.4. Udalarentzako lan egiten duten enpresei komunikazio barneratzailea erabiltzeko eskaria egitea</b>	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	<b>2018</b> <b>2019</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Komunikazio barneratzailea erabiltzeko beharra komunikatu zaie enpresei: bai/ez</li><li>- Komunikazioa bidali zaien enpresa-kopurua</li></ul>
---	--	----------------------------	---

### ARDATZA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA

#### HELBURUA: 6. Berdintasunaren aldeko araudiak sortzea

<b>NEURRIAK</b>	<b>ARDURADUNAK/ INPLIKATUTAKO SAILAK</b>	<b>EPEA</b>	<b>ADIERAZLEAK</b>
<b>6.1. Berdintasunerako udal-ordenantza lantzea eta aplikatzea</b>	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria	<b>2018</b> <b>2019</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Berdintasunerako udal-ordenantza landu da: bai/ez</li><li>- Udal-ordenantza onartu da: bai/ez</li><li>- Ordenantza Udalean zabaldu da: bai/ez</li></ul>



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

### ARDATZA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA

#### HELBURUA: 7. Genero-ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontuak lantzea

NEURRIAK	ARDURADUNAK/ INPLIKATUTAKO SAILAK	EPEA	ADIERAZLEAK
<b>7.1. Sail bakoitzean berdintasunerako politikak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak aztertzea eta horiei erantzuna ematea</b>	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa Sail guztietako Ordezkariek <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkariek Sail guztietako ordezkariek Politikoak	<b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Berdintasunerako Politikak garatzen dituen sail-kopurua</li><li>- Berdintasunerako politikak garatzeko, sail bakoitzaren aurrekontua</li></ul>
<b>7.2. Udalak onartzen dituen aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten inpaktua aztertzen hasia</b>	<b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa Funtzio Publikoko Teknikaria <b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkariek	<b>2018</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Udalak onartzen dituen aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten inpaktua aztertzen hasi da: bai/ez</li><li>- Udaleko aurrekontu osoarekiko, berdintasunerako politikak garatzeko aurrekontua</li></ul>



## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

<p><b>7.3. Udalak onartzen dituen aurrekontuetan, ahultasun-egoera larrienetan dauden emakumeen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako baliabideak aurreikustea</b></p>	<p><b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa Funtzio Publikoko Teknikaria</p> <p><b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria</p>	<p><b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahultasun-egoera larrienetan dauden emakumeen bizi-baldintzak hobetzera zuzendutako baliabideak euren aurrekontuetan txertatu dituen zerbitzu-kopurua</li> </ul>
<p><b>7.4. Berdintasuna sustatzea, elkarte zein erakundeei (kirola, gizarte-gaiak, kultura, jaiak) diru-laguntzak esleitzerakoan genero-irizpideak txertatuz eta horien betetze-mailaren balorazioa eta jarraipena eginda</b></p>	<p><b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa Sail guztietako Arduradunak</p> <p><b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria Sail guztietako Ordezkari Politikoak</p>	<p><b>2018</b> <b>2019</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diru-laguntzak emateko orduan genero-irizpideak txertatu dira: bai/ez</li> <li>- Irizpideen betetze-mailari jarraipena egin zaio: bai/ez</li> </ul>
<p><b>7.5. Emakumeen elkarteek eta mugimendu feministak antolatutako ekintzak sustatzeko baliabideak aurreikustea</b></p>	<p><b>Teknikoa:</b> Berdintasun Teknikaria BHG-ko Koordinatzailea eta Berdintasuneko udal-arduradun teknikoa</p> <p><b>Politikoa:</b> Osasun Publiko, Kontsumo, Berdintasun eta Kirol Saileko Ordezkaria</p>	<p><b>2017</b> <b>2018</b> <b>2019</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen elkarteek eta mugimendu feministak antolatutako ekintzak sustatzeko baliabideak bermatzeko partidak txertatu dira aurrekontuetan: bai/ez</li> <li>- Udalak elkartei emandako diru-laguntzak</li> </ul>





## 4. Erandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

### ARDATZA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA

